

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000001323

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0576**Xedea:** ALKATETZA DEKRETUAK- COVID-19 INFORMAZIO KANPAINARAKO BULEGO MATERIALA UDALTZAINGOARENTZAT ALARMA EGOERAN.

Espediente zk.: IDA_DEK_0576;98-UD/20

Xedea

Bulego materiala udaltzaingoarentzat hornitzeko kontratua esleitzea. COVID19 informazio kanpaina burutzeko

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2019ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren eta Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, emergentzia egoera aldarrikatzea erabagi zan, onartutako Alarma Egoerak iraun bitarteko eraginagaz.

Laugarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko, baharrezkoa da, emergentziaz, hornidura kontratatzea.

Bosgarrena: Udaltzaingoa funtsezko zerbitzu legez deklaraturata dago eta bere oinarritzko funtzionamendurako baliabide materialak behar dauz, eta horreen artean bulego materialak dagoz. Oraingo honetan COVID-19 ari buruzko informazio kanpaina bideratzen ari da Udaltzaingoa eta hori burutzeko karpetak, rotulatzailak eta blog notak eskatu dauz besteak beste, kanpaina hori burutzeko. Egun, material hori ez dago udal biltegian eta ezinbestekoa da lehenbailehen eskuratzea.

**Sinadurea eta data**

Hori horrela, **MONTTE SL B20062295 enpresearen 2020-05-07 datako aurrekontua** aurkezten da.

Argudioak

Lehenengoa: 2019ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez aldarrikatutako Emergentzia egoerak, besteak beste, kontratazioan dauka eragina, beti be COVID-19ak sortutako egoeragaz lotura zuzena daukeen kasuetan.

Eta esleipen honeguz, COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, behar-beharrezkoa dan **bulego materialen hornidura** kontratatu gura da.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 120. artikulua arabera, emergentzia egoera beharrezkoak diran kontratazioak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa kontratazio espedientea izapidetzea, ezta kreditu nahikoa izatea.

Eta kontratuaren exekuzinoa hasteko epea, ezingo dau izan hilabete baino handiagoa.

Hirugarrena: Esleipena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erakunde Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari jagoko.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot

LEHENENGOA: Espediente honetako aurrekontuan agertzen diran **bulego materiala** inbentariaezinak emoteko hornidura kontratua, **emergentziaz, MONTTE SL B20062295 IFZ** zenbakidun enpreseari esleitzea, **163,51** eurotan **BEZaz kanpo**, (**BEZari jagokon zenbatekoa: 34,34** euro). **DANATARA: 197,85** euro.

BIGARRENA: **197,85** eurotako gastuari aurre egiteko kreditu nahikoa ez balego **00300-93110- 2200100 partidan**, erabagi hau hartzen danean, jagokon kreditu zuzkidura egiteko agindua emotea Ekonomia Sailari.

HIRUGARRENA: Esleipendunari kontratua berehala exekutatzeko agindua emotea eta, ohartarazotea, kontratuaren exekuzinoa erabagi honen jakinarazpena jaso eta gehienezko hilabeteko epean hasiko ez baleu, esleipena bertan behera geratuko dala.


BOSGARRENA: Esleipendunari, lehiatzaileari, kontu hartzaileari eta diruzainari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.



SEIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Dekretu hau alkateak eskuordetzea emanda sinatuko da

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E400044E7900G4R2B9B5T2K8</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-EKONOMIA ETA OGASUN ZINEGOTZIA - 08/06/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/06/2020 13:38:22</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK0576</p> <p>Fecha: 07/05/2020</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	---	--

